

IKASTETXEA	San Miguel de Aralar I		
IZENBURUA	Ur putzuak balira bezala	MAILA	2 DBH
IRAKASLEA	<i>Silvia Mauleon / Arantzazu Portu</i>	IKASGAIA	Natur Zientziak

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

2. ATAZA

UR-PUTZUAK BALIRA BEZALA

Eguzkiak ez dio eredu jakin bati jarraitzen argi-izpiak igortzeko; norabide guztietan ateratzen dira argi-izpiak Eguzkitik. Lurraren atmosfera zeharkatzen dutenean, eta Lurreko gainazal distiratzailleetan islatzen direnean, ordea, argi-izpiak ordenatu egiten dira, eta norabide bakarra hartzen dute guztiek. Argi polarizatu esaten zaio argi horri.



Naturan, ur-putzuak izan ohi dira gainazal distiratzailleak, eta intsektuek eta beste hainbat

animaliak erreferentzia gisa erabiltzen dituzte. Argi berezi hori igortzen duten guneeetara hurbiltzen dira, ur-putzuak direlakoan. Ur-putzuak ezinbestekoak dira hainbat animaliaarentzat: ur-putzuetan

Naturan, ur-putzuak izan ohi dira gainazal distiratzailleak, argi polarizatua igortzen dutenak

bilatzen dute elikagaia eta jartzen dituzte arrautzak.

Bada, ezinbestekoa duten inguruneak ez baizik eraikin edo asfaltozko gainazal batek igortzen duenean haientzat erreferentziazkoa den argi polarizatua, kalte izugarri handia jasaten dute animalioek. Michigango ikertzaileak eta haren lankideek behin baino gehiagotan aurkitu dituzte ugaltzera ur-inguruneetara hurbiltzen diren intsektuak asfaltoaren gainean eta auto gorri baten sabaian jartzen arrautzak.



Eraikinak eta asfaltozko errepideak ur-putzuak balira bezala ikusten dituzte hainbat animaliak

Jakina, argia ur-putzuek bezala islatzeak ez ditu egokiak egiten toki horiek arrautzak aurrera ateratzeko. Beraz, galdu egiten da hainbat eta hainbat animaliak beren espezieak iraun dezan egiten duten ahalegina.

Argi polarizatuaren poluzio deitzen diote ikertzaileek fenomeno horri. Arazo handiena da, ikertzaileen ustez, gizakiok sortutako eraikinak gero eta ugariagoak direla, eta, noski, gero eta azalera handiagoa hartzen ari direla. Hortaz, intsektuek aukera gehiago dituzte huts egiteko eta behar ez duten lekuan egiteko berez uretan egin beharko lituzketen jarduerak.

Hainbat adituk uste dute arazo hori uste baino larriagoa dela. Egia esan, ez dira azterketa asko egin arazoa noraino iristen den jakiteko, baina uste dute intsektuetatik harago ere iristen dela.

Adibidez, esaten dute argi polarizatua islatzen dutelako jaten dituztela dortokek plastikozko poltsak, beren elikagai gogokoenarekin, marmokekin, nahasten dituztelako, nonbait.

Oihane Lakar Iraizoz
Deia

JATORRIA	
EGILEA	Oihane Lakar Iraizoz
IZENBURUA	UR-PUTZUAK BALIRA BEZALA
ARGITALETXEA/Webgunea	Deia
URTEA	2009
ORRIALDEA (K)	2
ISBN	
TESTU-MOTA	
OINARRIA	Inprimatua
FORMATOA	Jarraia
MOTA	Azalpena
ERABILERA	Publikoa

JARDUERAK	
1. INFORMAZIOA BILATU EDO BERRESKURATU	
1.1 Galdera	
Zergatik jaten dituzte dortokek plastikozko poltsak?	
1.1 Erantzuna	
Dortokek plastikozko poltsak beren elikagai gogokoenarekin, marmokekin nahastu eta jan egiten dituzte.	
1.1 OHARRAK	
1.2 Galdera	
Zer da argi polarizatua?	
1.2 Erantzuna	
<ul style="list-style-type: none"> - Gainazal distiratzailiek islatzen dituzten argi-izpi ordenatuen multzoa. - Norabide bakarra hartzen duten argi-izpien multzo ordenatua. 	
1.2 OHARRAK	
2. ULERMEN OROKORRA	
2.1 Galdera	
Zer ondoriozta dezakegu testuaren irakurketatik?	
2.1 Erantzuna	
<ul style="list-style-type: none"> - Giza-eraikuntzek kalte ditzakete hainbat animaliaren bizi-ohiturak. - Plastikozko poltsak ez direla erabili behar. - Ingurumena zaindu behar dugula. - ... 	
2.1 OHARRAK	
2.2 Galdera	
Aukeratu testuarentzat beste izenburu bat.	
2.2 Erantzuna	
Erantzun irekia.	
2.2 OHARRAK	

Erantzun posible batzuk: “Gizakiaren eragina naturarengan” “Gizakia vs. Natura” “Intsektuek gero eta zailago daukate ugaltzeko lana”
3. INTERPRETAZIOA- INFERENTZIAK
3.1 Galdera
Gizakiak eraikin eta errepide gutxiago eraikiko balitu: a) Naturan intsektu gutxiago egongo litzateke E / G b) Argi polarizatuaren arazoa gutxituko litzateke E / G c) Dortokak hirietara joango lirateke E / G d) Intsektuek ondorengo gutxiago izango lituzkete E / G
3.1 Erantzuna
Erantzuna: a) E, b) E, c) G, d) E
3.1 OHARRAK
3.2 Galdera
Michigango ikertzaileek intsektuak autoen sabaietan erruten ikusi dituzte. Zergatik?
3.2 Erantzuna
Autoen sabaiak gainazal distiratsuak direnez, argi polarizatu igortzen dute, eta intsektuek ur-putzuak direlakoan erruten dute bertan.
3.2 OHARRAK
4. EDUKIAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA BALORAZIOA
4.1 Galdera
Zer neurri proposatuko zenuke zuk arrautzak toki desegokian jartzearen arazo honi aurre egiteko?
4.1 Erantzuna
Erantzun irekia. - Gizakiaren eragina gutxitzea. - Plastikozko poltsa gutxiago erabiltzea - Ahal den neurrian “pintura mateak” erabiltzea - ...
4.1 OHARRAK
4.2 Galdera
Intsektuek ingurune ez-urtsuetan (lehorretan) erruten badute, zein ondorio ekar diezaioke horrek landaretzari?
4.2 Erantzuna
- Intsektu kopurua jaitsiko da arrautzak ez direlako aurrera aterako. Landare askoren polinizazioa intsektuen bidez burutzen denez, hauen (landareen) ugalketa sexuala saihestuko da, eta hainbat espezie gal daitezke. - Intsektu gutxiago egonez, landare gutxiago jango dituzte eta hau onuragarria izango da landareentzat.
4.2 OHARRAK
5. FORMAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA EBALUAZIOA

5.1 Galdera
Zer adierazten du egilearen azpian dagoen “Deia” hitzak?
5.1 Erantzuna
Deia egunkariaren izena da eta artikulua nondik atera den adierazten du.
5.1 OHARRAK
5.2 Galdera
Zientifikoa al da irakurri duzun testua? Zergatik?
5.2 Erantzuna
Testua argia da, ongi antolatua dago, paragrafo bakoitzean ideia bat antolatzen du, lexiko berezia du, argazkiek testua dioena argitzeko balio dute...
5.2 OHARRAK